

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Azkoitira loreak!

BURRUNTZALI EDO EZ, Azkoitian bada burutik. Eta burulanari loreak.

Antton Mendizabal eskultorearen eta Carlos Ceballos arkitekturen obra da Jorge Oteiza izena daraman pilotalekuen gunea, oriotarraren burutazioa izan omen zen eta. Beheraxeago, Balda plaza sekulakoan, hor dago haren *Batarra* eskultura. Azkoitian ibili zen bururik, eta obra burututa, bada burudun burubiderik. Oteiza pilotalekuek abangoardia eskultura izugarria osatzen dute. Joko zaharrenetakoarentzat XXI. mendeko habia gozoa.

Pilotaren lehen eguna antolatu berria dute. Ez nolanahikoa. Aspaldi ikusi gabeko joko eta lehiak, alajaina! Bat gorena: errebote partida. Iparralde errebotezalea eta Hegoalde errebotekaltea elkarri pilota ukaldika, Gipuzkoan bizi den laugarren errebote-plaza estreinatzen. Garai batean lurralde horretan bazen honelako plaza ugari, gutxi gehiago herriero. Zubieta, Villabona, Oiartzun eta laurak tira beharko diote, aurrerantzean, inolaz ere kirola ez den joko honen uztarriari.

Lehen ere esan nuen orriotan eta erreplikatzeko ez dut lotsarik: "Euskaldunok munduaren aurrean azaltzeko modukoa den zerbait baldin badaukagu, hori errebotea da. Errebote jokoa da gaur egungo kiroletan, kirolariaren inteligentzia



PILAR RIVERA

Oteizaren *Batarra* eskultura.

garatzeko aukera ematen duen bakanetakoa. Errebotea kirola ez den kirola da, desberdintasunean oinarritua".

Pilota hara-hona zebilela hor zeuden, eskuera sareak, palak, zestak, xixterak... zurezkoak. Zume eta sahats (*Salix sp.*), arkakarats (*Rosa canina*), gaztaina (*Castanea sativa*), hurritz (*Corylus avellana*), pago (*Fagus sylvatica*)... Hor ziren, piloten larru gozoez aldamenean, milaka urtetan gu egin gaituzten jokoak ahalbidetu dituzten zurak.

Bejondeizula azkoitiar, no eta to loreak!



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserriaren Kooperatiba
Ugarte Industrialdea, 12 Usurbil 20170 Gipuzkoa

- Elikagai ekologikoak
- Usurbilgo baserrietako produktuak
- Sagardogintzarako tresneria
- Tratamendu naturalak
- Onttoen haziak...
- Banaketa zerbitzua

DENDAREN ORDUTEGIA
Astekhenetik-Ostiralera: 9etatik-11etara eta 16etatik-19.30etara
Larunbatetan: 9etatik-11etara
Tel/Fax: 943 36 11 14
www.alkartasunausurbil.com • alkartasuna@usurbil.com